



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

Sarrera

Emakumeen eta gizonen berdintasun erreala oinarrizko demokrazia-elementua da, gure gizartea maila politiko, sozial eta ekonomikoan eraikitzeko.

Emakumeek eta gizonak izan ohi duten zeregina nabarmen aldatu da, eta aldaketa sozial handiak sortu dira berdintasunerako bidean. Aldaketa horiek, gainera, ez lirateke lortuko mugimendu feministak eta emakumeen mugimendu asoziatiboak egindako funtsezko ekarpenik gabe, ez eta lanean aritu diren eta aurrerapena ahalbidetu duten emakumeen eta gizon batzuen ahaleginik gabe ere.

Haatik, lorpenak gorabehera, sexuagatik ez bereizteko printzipioa babestu eta berdintasuna antolamendu juridikoko balio gorentzat jotzen duten legeak gorabehera, eta berdintasun erreala eta eraginkorra kalte dezaketean oztopoak kentzeko botere publikoei zuzendutako mandatua gorabehera, oraindik ere bereizkeria eta desberdintasun-egoerak gertatzen dira, lan-merkatuari buruzko datuek, partaidetzak eta erabakiak hartzea, etxeko lanak egiteak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeak, emakumeen aurkako indarkeriak, pobreziak eta abarrek erakusten dutenez.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken arau-esparrua

Hainbat arau juridikotan jasota daude emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa eta sexuagatiko edozein bereizkeria-mota berariaz debekatzea.

Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko konbentzioa NBEren Biltzar Nagusiak onetsi zuen 1979ko abenduan, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioa aldarrikatzen du. 2. artikuluan, kideek hitzematzen dute "legeen nahiz beste bide egoki batzuen bitartez praktikan printzipio hori gauzatzen dela" ziurtatuko dutela.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana

Bestalde, Amsterdamgo Ituna 1999ko maiatzaren 1ean indarrean sartu zenez geroztik, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna formalki jo da Europar Batasunaren oinarritzko printzipiotzat. Europar Batasunaren Tratatu 3.2 artikuluekin bat etorriz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatu eta Berdintasuna sustatzeko xedea integratu egin behar da Batasunaren zein estatu-kideen politika eta jarduera guztietan.

Orobat, Emakumeen eta gizonen toki-bizitzako berdintasunerako Europako gutuna ere azpimarratzekoa da, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak gauzatutako egitasmo baten esparruan egina (2005-2006).

Gure inguruan, dena den, Euskadiko Autonomia Estatuaren 9.1 artikulua dugu, eta Espainiako Konstituzioan xedatutakoa aipatuz, Berdintasuna eta sexuagatiko bereizkeria eza aldarrikatzen ditu. Halaber, 9.2 d) artikulua dio botere publikoek beharrezko baldintzak eta oztopoak kentzea sustatu behar dutela, norbanakoen eta taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Eusko Legebiltzarrak, bere aldetik, Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko 2/1988 Legea onetsi zuen, eta horren bidez lehentasunezkoztat jo zuen emakumeen aurkako bereizkeria-mota guztiak modu eraginkorrean ezabatzea eta beharrezko neurriak hartzea, gure erkidegoko alor guztietan parte har dezaten; halaber, esparru horretan jarduera koordinatua bultzatzeko zeregina hartu zuen bere gain.

Espainiako Gobernuak ere hainbat ekimen gauzatu ditu bide horretan. 2004. urtean, Genero-indarkeriaren aurkako lege integrala onetsi zuen (1/2004), eta horren bitartez, hainbat estrategia juridiko eta sozial ezarri zituen, indarkeria-mota horri aurre egiteko; zehazki, berau prebenitzeko eta biktimei babes integrala emateko. Eta 2007an, bestalde, Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako legea onetsi zen (3/2007).

Arauen testuinguru horrek osatzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Derioko II. Plana, eta bi erreferentzia argi izango ditu: Emakumeen eta Gizonen



Derioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana

Berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko V. Plana.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea da gaur egungo maila altueneko araua: helburuak eta planteamenduak jasotzen ditu Berdintasunari begira, eta tokiko administrazioak berariaz aipatzen ditu. Zehazki, udalen eskumenen harira, zeregin hau tokiko administrazioaren esku uzten da I. Tituluan (7. art.):

1. – Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia euren administrazioan integratze aldera.
- b) Tokian ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- c) Tokian programak egitea, Jaurlearitzaren plangintza orokorraren esparruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruan.
- d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez tokiko erakundeen eskumeneko eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- e) Tokian emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- f) Tokian, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- g) Tokiko araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten, programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela eta, udalerrian eman beharrekoak direnean.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

- j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, euren izaera dela eta, udalerrian eskaini beharrekoak direnean.
- k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek tokian emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- l) Tokian sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak atzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

2. - Tokiko administrazioek aurreko paragrafoan aipatzen diren eginkizunak benetan bete ditzaten laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetzaren teknika eskainiko die, eta foru-administrazioek ere beharrezkoak diren sustapen-neurriak hartuko dituzte.

Eta aurrerago, II. Tituluko 15. artikuluan, honako hau esaten da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen inguruan:

“Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, bermatu egingo dute euren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla. Udalek banaka zein kide diren edo ondore horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bidez egin ditzakete jarduketara horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza tekniko eta dagokion foru-aldundiaren laguntza ekonomiko izango dituzte, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenek”.

Beste alde batetik, Emakunde argitaratutako **Emakume eta Gizonen Berdintasunerako EAEko V. Plana** ere badago, eta bertan gidalerro nagusiak jasota daude, Berdintasunaren alorrean euskal botere publikoek IX. legegaldian gauzatu behar duten jarduera orientatzeko. Aurreko lau planen indarraldian



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

izandako bilakaera eta aurrerapenetatik sortu da, eta horrenbestez, dokumentuak berak dioenez, "Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren alorrean egindako plangintzen tradizio luze baten oinardeko da".

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako EAEko V. Planak Berdintasunerako politika publikoek bultzatzen duten estrategia duala hartzen du bere gain: genero-ikuspegia edo *mainstreaminga* eta Berdintasunerako politika zehatzak txertatzea, jarduera positiboan edo neurri zehatzen bitartez.

Horretarako, egituran "Emakume eta Gizonen Berdintasunaren aldeko Gobernantza" izeneko arloa proposatzen da. Bertan, gobernantza hobetzeaz dihardu Berdintasunaren alde, eta alderdi oinarrizkoagoak ere jasotzen ditu, ez soilik Berdintasunaren alde lan egiteko moduan egoteko, baizik eta printzipio hori erakundeen antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardunean integratzeko ere, politika publikoen garapena hobetu eta berrantolatzeke.

Berdintasunerako politika zehatzetan, Planak esku hartzeko hiru ardatzez dihardu: emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea, gizarte-antolaketa erantzunkidea, eta emakumeen aurkako indarkeria.

Hain zuzen, eskema hori oinarri hartuta egin da dokumentu honek jasotzen duen Plana.

II. Plana egiteko metodologia

II. Plana egiteko metodologiak honako fase hauek izan ditu:

1. fasea: Derioko Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioa.

Udalerriko Berdintasunerako I. Planaren ezarpen-maila ezagutzeko, Plan hori kualitatiboki eta kuantitatiboki ebaluatu da.

Ekintzaz ekintza aztertu da, guztira edo zati batean zer ekintza egin den eta zein egin ez den jakiteko. Orobat, Planean jasotako jarduera guztiak betetzea oztopatu duten arrazoiak aztertu dira.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

Azterketa kualitatiborako, Udaleko teknikariek eta politikariek betetako galdetegi bat egin da. Horren helburu nagusia zen ezagutzea zein zen udalerrian eta udalerrirako lan egiten dutenen berdintasunari buruzko iritzia, oro har, eta berdintasun planei buruzko iritzia, zehazki.

Lan hori egiteaz berdintasun unitatea arduratu zen: Derioko berdintasunerako II. Planaren ebaluazio-txostena egin zuen, eta dokumentu hori baliagarri izan da III. Plana egiteko oinarri gisa erabil daitezkeen ahulgune eta indarguneak zein diren jakiteko.

Horren arabera, I. Planaren betetze-maila ertaina/handia izan da, eta arlo landuenak tokiko administrazioa eta kultura, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza izan dira.

2. fasea: II. Planaren zirriborroa egitea.

Berdintasun Unitateak, EAEko berdintasunerako V. Plana erreferentzia gisa hartuta egin du II. Planaren zirriborroa, elementu hauek ezarrita:

- Helburuak
- Gauzatuko diren ekintzen multzoa
- Adierazleak
- Arlo arduradunak
- Kronograma

3. fasea: II. Planaren zirriborroa erkatzeko fasea.

Zirriborroa politikariek, teknikariek eta Derioko herritarrekin erkatu da, euren ekarpenak, iradokizunak eta iritziak biltzeko, ahalik eta adostasun eta babes handiena izan dezan.

4. fasea: Derioko berdintasunerako II. Plana egitea.

Aurreko faseko ekarpenak aintzat hartuta, behin betiko dokumentua egingo da: EMAKUNDEK balioztatu ondoren, Udalbatza osoak onetsiko du.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

II. Planaren egitura: indarraldia eta definizioa

Planaren indarraldia hiru urtekoa izango da: 2014tik 2016ra bitartekoa.

Printzipioak

1. 4/2005 Legea betetzen du. Horrek ezartzen du tokiko administrazioek Berdintasunerako Plan bat izan behar dutela, Eusko Jaurlaritzaren planifikazio orokorrean ezarritako esku hartzeko lerroei eta gidalerroei jarraikiz.
2. Bat egiten du Eusko Jaurlaritzak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planean ezarritako gidalerroekin; izan ere, Plan horretan ezarritako programa eta ardatzen arabera dago antolatuta. Azken horiek hauek dira: gobernantza, emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea, gizarte-antolamendu erantzunkidea, emakumeen aurkako indarkeria.
3. Plan ebaluagarria da, bertan ezartzen direlako ebaluazio-irizpideak gauzatuko den jarduera bakoitzerako.

Ardatz estrategikoak

EAEko Emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako V. Planak, Emakundek egin eta onetsi duenak, genero-ikuspegia politika publikoetan zeharkakotasunez ezartzearen alde egiten du, berdintasunerako **Gobernantza** hobetzen jarraitzeko modu onena delako. Halaber, sailen eta erakundeen arteko koordinazioaren alde egiten du, hori elementu gakoa baita egiturazko eta dimentsio anitzeko fenomeno bati erantzun eraginkorra emateko: emakume eta gizonen arteko desberdintasun-egoera.

4/2005 Legeak bere printzipio orokorren artean ezartzen du genero-ikuspegia ezarri behar dela botere publikoek gauzatzen dituzten politika eta ekintza guztietan, ezberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko (3. artikulua). Bada, lege horren ondoretarako, genero-ikuspegia ezartzea da "*emakume eta gizonen egoerak, baldintzak, nahiak eta beharrianak sistematikoki aintzat hartzea, helburu eta jarduera zehatzak gehituta,*



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

desberdintasunak desagerrarazteko eta politika eta jarduera guztietan berdintasuna ezartzeko, maila orotan eta planifikazio-, exekuzio- eta ebaluazio-fase guztietan".

Berdintasunerako gobernantza hobetzeko modua aztertzen den atala ez ezik, Planak hiru ardatz estrategiko jasotzen ditu:

1. Emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea

Esku hartzeko lerro horrek dakar autoritatea eta emakumeek bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakien inguruan boterea izateko aukerak handitzea. Bestalde, emakumeek norbanako- zein talde-mailan kontzientzia hartzeko prozesu bat aipatzen du, botererako sarbidea eta eragiteko ahalmena lortzeko ere baliagarri dena.

2. Gizarte-antolamendu erantzunkidea

Gizarte-antolamendu erantzunkideak dakar bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea. Horretarako, gizonen erantzukizuna sustatzen da etxeko lanean, enpleguaren egiturak egokitzen dira bizitza pertsonalaren eta familiakoaren beharrianetara, eta zerbitzu sozio-komunitarioak egokitzea.

3. Emakumeen aurkako indarkeria.

Lerro estrategiko honen helburua da epe laburrera jardutea, neurri eta baliabideak artikulatuz emakumeenganako babesa eta arreta integralerako. Gainera, lehenetsuna dute, orobat, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak ere, emakumeen aurkako indarkeria-formak azaleraztzen badituzte, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunetik eratorritako gizarte-arazo gisa. Xedea da apurka-apurka murriztea lortzea, harik eta guztiz desagertzen den arte.

Esku hartzeko lerroak programen bidez gauzatzen dira:

Emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea:

1. programa: autonomia pertsonala eta balioak aldatzea
2. programa: ekonomia- eta gizarte-baliabideetarako sarbidea, eta horien kontrola
3. programa: parte-hartze soziopolitiko eta eragina.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

Gizarte-antolamendu erantzunkidea:

4. programa: erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak.
5. programa: bateratze erantzunkidea.

Emakumeen aurkako indarkeria:

6. programa: sentsibilizazioa eta prebentzioa.
7. programa: arreta.

Plana kudeatzeko tresnak

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 4/2005 Legeko 10. artikuluan ezarritakoarekin bat, foru- eta toki-administrazioek, euren eskumenen eta auto-antolamenduaren baitan, euren egiturak egokitu behar dituzte, horietako bakoitzean gutxienez administrazio-erakunde, organo edo erakunde bat egon dadin, emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak bultzatzeaz, programatzeaz, aholkuak emateaz eta ebaluatzeaz arduratzeko, lurraldeko jarduera-organoean.

Derioko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana martxan jartzeko eta Planaren jarraipen- eta ebaluazio-prozesu ezin hobea egiteko, kudeaketarako 4 egitura erabiliko dira:

Talde eragilea - Berdintasun Zerbitzua: Honako hauek osatzen dute talde eragilea: Berdintasun Zerbitzua, Berdintasun Arloaz arduratzen diren zinegotzigoak eta Alkatetza.

Eginkizun hauek ditu talde horrek: plana ezartzeko beharrezkoak diren lan guztiak koordinatzea, hau da, kudeaketa egokia izan dadin beharrezkoak diren prozesuak garatzea; eta planak esleitzen dizkion ekintza eta helburu guztiak garatzea. Zehazki, honako hauez ari gara:

- Plana sustatzea eta koordinatzeaz.
- Parte hartzen duten eragile guztiekin elkarrizketatzeaz.
- Informazioaz eta komunikazioaz.
- Aholkularitzaz eta prestakuntzaz.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

- Jarraipenaz eta ebaluazioaz.

Talde horretako pertsona arduraduna Berdintasun Arloko teknikaria da, lanaldiaren % 75 baliatzen duena eta zeregin horretan lau urteko esperientzia ez ezik, gaiari buruzko prestakuntza duena.

Sailen arteko talde teknikoa: Koordinazio teknikoa gauzatzeko sail guztien arteko egitura da. Berdintasunerako neurriak garatzean diharduten arloetako langileek osatuko dute. Talde horren helburuak honako hauek dira:

- Euren arloan berdintasunerako neurriak diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko koordinazioa bideratzea.
- Hobekuntzak eta aldaketak proposatzea, Plana malgutzeko irizpideak sartzea, eta abar.

Erakundeen arteko koordinazio-egiturei dagokienez, Berdintasun Unitatea harremanetan dago BERDINBIDEAN Bizkaiarekin, eta modu aktiboan parte hartzen da ekimen horretatik abiarazten diren jardueretan.

Aurreikusitako da 2015erako sortuko dela **Emakumeek eta gizonek parte hartzeko eremu bat**. Herritarrek parte hartzeko egitura bat da, honako zeregin hauek izango dituen:

- Proposamenak egitea eta Plana ezartzen laguntzea.
- Planaren jarraipenean eta kontrolean parte hartzea.
- Ebaluazioa egitea eta Berdintasun Unitateari aholkularitza ematea.
- Iritziak eta analisirako gaitasuna sortzea.

Jarduera-programa

Helburuek definitu egiten dute aldatu nahi den gizarte-errealitatea eta bete egiten dute egin beharrekoa lehenesteko eta, proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioen bidez, lortutako emaitzen irismena zehazteko zeregina.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

II. Plan honetan arloen araberako helburuak ezarriko dira. Bakoitzari gauzatu beharreko **jarduerak** gehituko zaizkio. Horiek EAeko Berdintasunerako V. Planean jasotako ekintza sortetan daude jasota.

ARLOAK	HELBURUAK	JARDUERAK
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	4	22
EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA	6	29
GIZARTE ANTOLAMENDU ERANTZUKIDEA	2	8
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	3	8
GUZTIRA	15	67

Urteko egitaraua

Plana ezartzea errazteko, indarraldi-urte bakoitzaren hasieran Jarduera Plan bat sortuko da. Bertan jasoko dira jarduera bakoitzaren kostuak.

Plana ebaluatzeko sistema

Urtero eta Planaren indarraldiaren amaieran, betetze-mailari buruzko ebaluazioa egingo da. Halaber, talde sustatzailea arduratuko da Planaren emaitzak ebaluatzeaz; azken batean, ezarritako helburuen arabera gizarte-errealitatea zein neurritan aldatu den ezagutzea.

Jarduerak ebaluatzeko, fitxa bat beteko da. Bertan betetze-maila, jarduera abiarazteko sor litezkeen arazoak eta lortutako emaitzak jasoko dira. Fitxa II. ERANSKINEAN jaso da.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

Aurrekontua

Planaren lehenbiziko indarraldi-urterako, exekuziora bideratutako aurrekontua 13.000 €-koa da.

Ezinezkoa da zehaztea zein den indarraldiaren hiru urteetara bideratutako zenbateko osoa; baina, udalerrian Berdintasunerako II. Planera antzeko partida bat bideratzen jarraitzeko konpromiso irmoa dago.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana

I. ERANSKINA

(Derioko Emakume eta Gizonen arteko Bedintasunerako II.
Plana)



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

GOBERNANTZA

HELBURUA: Berdintasuna sustatzea Udalak egin edo sostengatzen dituen politika, programa eta jarduera guztietan.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
G 1.1 Txorierriko Mankomunitateko Berdintasunerako zerbitzua mantentzea.	Mankomunitateko Batzorde Politikoa				Berdintasun zerbitzua edukitzea.
G 1.2 Urtero II. Plana ezartzera bideratutako partida bat onestea.	Udalbatza Osoa				Urtean planari zuzendutako aurrekontuaren ehunekoa.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>G 1.3 Plan honetako ekintzak egiteko beste erakunde batzuei diru-laguntzak eskatzea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Eskatutako diru-laguntzak.</p>
<p>G 1.4 Beharrezkoa denean, Berdintasunean espezializatuta dauden enpresak kontratatzea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Berdintasunean adituak diren enpresen kontratazio kopurua.</p>
<p>G 1.5. Berdintasun arloak Udalaren web orrian dituen edukiak gaur eguneratzea eta hobetzea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Web gunean eguneratutako edukiak eta sartu diren eduki berrien kopurua.</p>
<p>G 1.6 Emakume eta gizonen parte-hartze orekatua bultzatzea balorazio-batzordeetan (lehiaketak, epaimahaiak...).</p>	<p>Arlo guztiak</p>				<p>Epaimahai eta batzorde paritarioen kopurua.</p>
<p>G 1.7 Lanean jazarpen sexistari eta sexualari aurrea hartzeko barne-protokoloa sortzea.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Protokolo bat edukitzea. Esku-hartzearen maila.</p>



2. HELBURUA: Barruko eta kanpoko komunikazioa sustatu eta hobetzea eskubideen berdintasunaren inguruan

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
G 2.1 Berdintasunerako Plana zabaltzea Udaleko politikarien, elkarteen, herritarren eta teknikarien artean, eta arloka bilerak egitea.	Berdintasun Unitatea				Plana zabaltzeko egindako ekintzak.
G 2.2 Udaleko politikari eta teknikariei aldiro-aldiro informazioa ematea Planaren aurrerapenei buruz.	Berdintasun Unitatea				Informazioaren aldizkakotasuna eta ezaugarriak.
G 2.3 Udaleko arloek sortzen dituzten agiri publikoak berrikustea, hizkuntza, eduki eta irudi sexistak errotik erazteko.	Mankomunitatea				Aztertutako dokumentu publikoen kopurua.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>G 2.4 Eskubideen berdintasunaren arloan egiten diren batzarrak, jardunaldiak eta artikuluak zabaltzea Udaleko politikari eta teknikarien artean.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Berdintasunaren arloan zabaldutako informazio kopurua eta ezaugarriak.</p>
--	-----------------------------	--	--	--	---

3. HELBURUA: Genero-ikuspegia sartzeari udal arloen eguneroko lanean

<p>EKINTZA</p>	<p>ARLO ARDURADUNA</p>	<p>2014</p>	<p>2015</p>	<p>2016</p>	<p>ADIERAZLEAK</p>
<p>G 3.1 Gida bat egitea genero-ikuspegia udal-kudeaketan sartzeko.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Erreferentziako gida bat edukitzea.</p>



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>G 3.2. Udalean hasten diren langile eta ordezkari politiko berriei prestakuntza eskaintzea, Berdintasun arloan gutxieneko ezagutzak bermatzeko.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Egindako prestakuntza- jardueren kopurua. Prestakuntzaren hartzaileak. Pertsonen kopurua, sexu eta lan arloen arabera banatuta. Egin diren saioen balorazioa.</p>
<p>G 3.3. Etorkizunean aurrekontu eta zergei buruzko ordenantzak genero-ikuspegitik garatzeko xedez, proiektu bat egiteko aurrerapausoak ematea. Adibidez, prestakuntza.</p>	<p>Arlo guztiak</p>				<p>Emandako urratsak</p>
<p>G 3.4. Hizkuntza ez sexista erabiltzeari buruzko gida argitaratzea.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Hizkuntza ez sexista erabiltzeari buruzko gida edukitzea.</p>



4. HELBURUA: Genero-ikuspegia barne hartzen duten udal-araudiak eskura izatea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
G 4.1. Baldintzen pleguak berrikusi eta aldatzea, genero-ikuspegia sartzeko.	Berdintasun Unitatea				Egokitutako baldintza-pleguen kopurua.
G 4.2 Hizkuntza ez sexista erabiltzea enplegu eta kontratazio publikoko beharrianak aurkeztean, eta eguneko aztergaien zerrendan berdintasunarekin zerikusia duten gaiak ezartzea.	Berdintasun Unitatea				Hizkuntza ez sexistaren erabilera ezarrita duten enplegu publikoen eskaintza kopurua. Eskaintza bakoitzean sartutako gaiak.
G 4.3. Ordenantza orokorrak berrikustea, genero-irizpideak txertatzeko kanpo enpresen kontratazioan.	Arlo guztiak				Erabakitako irizpideen arabera diruz lagundutako ehunekoa.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

G 4.4. Udaleko elkarteei diru-laguntzak emateko ordenantza aldatzea, genero-ikuspegia ezartzeko.					Ordenantzarekin bat datozen eskaerak.
---	--	--	--	--	---------------------------------------



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

I. ARDATZA: EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA BALIO ALDAKETA

1. PROGRAMA: AUTONOMIA PERTSONALA ETA BALIOAK ALDATZEA

1. HELBURUA: Emakumeek autonomia garatzearen zein generoaren arloan kontzientzia hartzearen alde egitea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
JB 1.1 Tailer eta hitzaldi sorta antolatzea, emakumeei gune bat eskaintzeko, bertan formazioa, gogoetak, elkartrukeak eta bestelakoak egiteko (informatika, lidergoa, auto-estimua, sexualitatea, osasuna, komunikazioa...).	Berdintasun Unitatea				Emakumeei zuzendutako ekintzen kopurua. Egin diren saioen balorazioa.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana

<p>JB 1.2 Adin guztietako gizonen inplikazioa lantzea, informazio kanpainak, tailerrak eta bestelako ekintzak eginez.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Gizonei zuzendutako ekintzen kopurua. Egin diren saioen balorazioa.</p>
<p>JB 1.3 Osasunaren arloan emakumeen premiak identifikatzea eta ongizate fisiko eta psikologikoa bultzatzeko ekintzak sustatzea, zenbait emakume ezberdin kontuan hartuz.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Emakumeei zuzendutako ekintzen kopurua. Egin diren saioen balorazioa.</p>
<p>JB 1.4 IGEarekin lan egitea ama eta eurei zuzendutako zenbait gairen inguruko hitzaldiak antolatzeko.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Egindako ekintza kopurua.</p>



2. HELBURUA: Balioen aldaketa sustatzea eta, horretarako, sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak errotik erauztea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
JB 2.1 Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen jarraitzea.	Berdintasun Unitatea				Martxoaren 8ko kanpainaren baitan eginiko ekintzen kopurua
JB 2.2 Gure gizartean emakumeek egindako ekarpen guztiak ikusgai egitea.	Berdintasun Unitatea				Emakumeen ekarpenak berreskuratzeko egindako ekintzen kopurua.
JB 2.3 Eguneratzea Berdintasun Arloak antolatzen dituen jardueretan informazioetan interesa duten emakumeen datu-basea.	Berdintasun Unitatea				Datu-basean dauden emakumeen kopurua.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana

<p>JB 2.4. Gazteekin batera eurentzat interesgarriak izan daitezkeen hainbat ekintza antolatzea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Antolatutako ekintzen kopurua.</p>
<p>JB 2.5 Gaztelekuko begiraleekin koordinatzea, berdintasunaren inguruko ekimenak abian jartzeko.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Antolatutako ekintzen kopurua.</p>
<p>JB 2.6 BEITU idazten dutenei hizkuntzaerabilera ez sexistari buruzko formakuntza eskaintzea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Antolatutako ekintzen kopurua.</p>
<p>JB 2.7 Derioko elkartei formakuntza eta aholkularitza eskaintzea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Egindako saioen kopurua. Emandako aholkuen kopurua. Saioen balorazioa.</p>



3. HELBURUA: Hezkidetzaren sustatzea.

EKINTZA	ARLOKO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
JB 3.1 Eskolan eta ludotekan eskubideen berdintasunaren aldeko ekintzak egitea (ipuin-kontalariak, tailerrak...).	Berdintasun Unitatea + Kultur Batzordea				Egindako prestakuntza-saioen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Prestakuntzaren balorazioa.
JB 3.2. Udalerrian eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdikoak antolatzen dituzten arduradun eta hezitzaileei prestakuntza exijitzea hezkidetzaren inguruan.	Berdintasun Unitatea + Kultur Batzordea				Egindako prestakuntza-saioen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Prestakuntzaren balorazioa.
JB 3.3 Hezkidetzaren gida bat argitaratzea, eskolako eta ludotekako gurasoei banatzeko.	Mankomunitatea				Gida bat edukitzea. Gurasoen balorazioa.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>JB 3.4. Hezkidetzaren arloan gurasoei zuzendutako ekintzak egiteak (hitzaldiak, tailerrak Gabonetan...).</p>	<p>Berdintasun Unitatea + Kultur Batzordea</p>				<p>Egindako prestakuntza-saioen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Prestakuntzaren balorazioa.</p>
<p>JB 3.5. Aisialdiko zerbitzuak (eskolaz kanpoko jarduerak, Udalekuak, uda...) kontratatzean, aintzat hartzea kontratatutako erakundearen ardatza hezkidetzaren printzipioak direla.</p>	<p>Berdintasun Unitatea + Kultur Batzordea</p>				<p>Hezkidetzaren printzipioak betetzen dituzten kontratatutako enpresen kopurua.</p>



2. PROGRAMA: BALIABIDE EKONOMIKO ETA SOZIALEN SARBIDEA ETA KONTROLA

4. HELBURUA: emakumeen enplegurako sarbidea eta baldintzak zein lanbide sustapena hobetzea, hainbat kolektibo eta egoera aintzat hartuta.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
JB 4.1. Emakumeen ekintzailatza sustatzea, EGAZ Txorierrirekin lan eginez.	Mankomunitatea				Emakume ekintzaileen proiektuen kopurua.
JB 4.2. Ekintzak bultzatzea, emakumeak sar daitezten gizonenak izan ohi diren lanbideetan.	Mankomunitatea				Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>JB 4.3 Gazteekin ekintzak egitea, ikasketak edo lanbidea hautatzean genero-joerak baztertzeko.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Prestakuntzaren balorazioa.</p>
--	-----------------------	--	--	--	--

5. HELBURUA: Baliabide sozialak eskuratzeko era eta pobrezia- eta/edo bazterkeria-egoera dauden emakumeen egoera hobetzea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
<p>JB 5.1 Emakume etorkinentzako baliabideen gida.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Emakume etorkinei zuzendutako gida edukitzea.</p>



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>JB 5.2 Gizarte-langileekin batera baloratzea emakumeei gizarte-zerbitzuetan ematen zaien laguntza, hobekuntzak egite aldera.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Ezarritako hobekuntzena kopurua.</p>
<p>JB 5.3 Gizarte-zerbitzuei informazioa eskatzea adingabeek nahi ez dituzten haurdunaldiei buruz.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Nahi ez diren haurdunaldiei buruzko txostenak edukitzea.</p>
<p>JB 5.4 Emakume migratzaileen taldea sortzea, bertan esperientziak eta egonezinak adierazi eta partekatzeko.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Taldea sortzea. Bileren kopurua. Bilera bakoitzera bertaratzen den emakumeen kopurua.</p>



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

3. PROGRAMA: PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

6. HELBURUA: Gizartearen, kulturaren eta kirolaren arloan emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
JB 6.1 Emakumeek sortutako edo emakumei zuzendutako lanak ere egotea, euren lana berariaz aitortzeko.	Berdintasun Unitateak + batzorde guztiak				Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Balorazioa.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>JB 6.2 Ekintzak gauzatzea, emakumeen kirola sustatzeko eta udalerriko emakumeen artean kirola bultzatzeko.</p>	<p>Berdintasun Unitatea + Kirol Arduraduna</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Balorazioa.</p>
<p>JB 6.3 SUTONDOAN emakumeen elkartearen ekintzak sustatzea eta, horretarako, euren proiektuak diruz laguntzea.</p>	<p>Kultur arloa + Berdintasun Unitatea</p>				<p>Diruz lagundutako proiektuen kopurua eta aurrekontua</p>
<p>JB 6.4 SUTONDOAN emakumeen elkartearekin batera ekintzak egitea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Elkarrekin antolatutako jardueren kopurua.</p>



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>JB 6.5 Herriko elkarteei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea, euren egitura eta ekintzetan genero-ikuspegia sartzeko.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Egindako prestakuntza-ekintzen kopurua. Prestakuntza jaso duten elkarteak. Pertsonen kopurua, sexuaren arabera banatuta. Egin diren saioen balorazioa.</p>
<p>JB 6.6 Derioko adineko emakumeei zuzendutako jarduerak egitea (zahartze positiboa eta abar).</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Balorazioa.</p>
<p>JB 6.7 Jai Batzordean eta merkatarien elkartearekin lan egitea, jai parekideagoak antolatzeke.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Gauzatutako ekintzen kopurua.</p>



II. ARDATZA: GIZARTE ANTOLAKETA ERANTZUKIDEA

4. PROGRAMA: ERANTZUKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA

7. HELBURUA: Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
AE 7.1 Derioko emakume eta gizonei zuzendutako eginkizunak partekatzekeo tailerrak egitea.	Berdintasun Unitatea				Tailerretan parte hartu duten pertsonen kopurua. Parte-hartzaileen sexua. Balorazioak.
AE 7.2 Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten emakumeen lana ikusgai egitea eta baloratzea (artikulu baten bidez BEITUn...).	Berdintasun Unitatea				Egindako ekintzen kopurua. Ekintzetan landutako gaiak. Balorazioa.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>AE 7.3 Erantzunkidetasuna lantzea ludotekan antolatzen diren jardueretan (jolasak, ipuin-kontaktak...).</p>	<p>Berdintasun Unitatea + Kultura Batzordea</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Ume parte-hartzaileen kopurua.</p>
<p>AE 7.4 Kanpainak, tailerrak eta ekintzak egitea, erantzunkidetasuna eta bizitza independentea nahiz autonomiarako gaitasunak bultzatzeko, batik bat udalerriko gizonei zuzenduta.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Balorazioa.</p>
<p>AE 7.5 Gurasoentzako ikastaroak egitea, estresa kentzeko uneen beharra lantzeko eta ugaltzeko zereginean erantzunkidetasuna sustatzeko.</p>	<p>Berdintasun Unitatea + Mankomunitatea</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Balorazioa.</p>



5. PROGRAMA: BATERATZE ERANTZUKIDEA

8. HELBURUA: Bateratzea erraztea.

Ekintza	Arlo Arduraduna	2014	2015	2016	Adierazleak
AE 8.1 Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, oporraldietan handitzea.	Berdintasun Unitatea + Kultur Batzordea				Aztertutako eskaintzen kopurua. Egindako aldaketen kopurua.
AE 8.2 Ikastetxeko jolastokia erabiltzen uztea ordutegitik zein eskola egutegitik kanpo.	Berdintasun Unitatea				Ikastetxeko jolastokia erabiltzea.
AE 8.3 Udal zerbitzu eta baliabideak ematen diren lokal guztietako irisgarritasuna bermatzea.	Berdintasun Unitatea + Hirigintza				Irisgarritasunaren bermatzea xede duten udal-zerbitzu eta baliabideetan egin diren ekintzen kopurua.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>AE 8.4 Hartzaindegi zerbitzua eskaintzea eta/edo zaintzaileen ordutegi aukerak kontuan izatea udaleko arloek antolatzen dituzten ekintzetan.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Hartzaindegi-zerbitzuaren aukera eskaintzen duten ekintzen kopurua. Zaintzaileen ordutegia aintzat hartu duten ekintzen kopurua.</p>
<p>AE 8.5 Emakumeen elkartearekin koordinatzea, euren jarduerak antolatzean kontuan har ditzaten bateratzeko aukera ematen dituzten ordutegiak.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Ordutegia kontuan hartutako egindako ekintzen kopurua.</p>



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

9. HELBURUA: Indarkeriarik gabeko portaera-ereduak bultzatzea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
AE 9.1 Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna egitea azaroaren 25ean, eta indarkeriaren inguruko sentsibilizazio-ekintzak egitea urtean zehar.	Berdintasun Unitatea				Azaroaren 25eko kanpaina egitea. Urtean zehar egindako ekintzen kopurua eta motak.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

<p>AE 9.2 Euskal Herrian gertatzen diren emakumeen aurkako indarkeriako kasu guztiak sistematikoki eta publikoki salatzea.</p>	<p>Arlo guztiak</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua eta izaera.</p>
<p>AE 9.3 Herrian antolatzen diren jaietan eraso sexisten kontrako kanpainak egitea.</p>	<p>Berdintasun Unitatea + Kultur Batzordea</p>				<p>Sexu-indarkeriaren aurka egindako kanpaina motak eta kopurua. Mota hauetako kanpainak egiten dituzten jaien kopurua.</p>
<p>AE 9.4 Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan sentsibilizazio-ekintzak egitea, bereziki gazteei zuzenduta.</p>	<p>Berdintasun Unitatea</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua, denbora, forma, edukia eta aurrekontua. Parte-hartzaileen kopurua. Balorazioa.</p>



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

10. HELBURUA: Jokabide bortitzen prebentzioa hobetzea.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
<p>AE 10.1 Emakumeentzat ez seguru gisa identifikatu diren zonaldeetan mantentze-lanetara bideratutako ekintzak egiten jarraitzea (sastrakak moztea, argiztapena, ispiluak...).</p>	<p>Berdintasun Unitatea + Hirigintza</p>				<p>Egindako ekintzen kopurua.</p>
<p>AE 10.2 Diagnosiko bat egitea Txorierriko gazteek emakumeen aurkako indarkeriaz duten ikuspegiari buruz.</p>	<p>Mankomunitatea</p>				<p>Txorierriko gazteek emakumeen aurkako indarkeriari buruz duten ikuspegiaren diagnostikoa edukitzea.</p>



7. PROGRAMA: ARRETA

11. HELBURUA: Laguntza egokia ematea emakume biktimei eta euren seme-alabei.

EKINTZA	ARLO ARDURADUNA	2014	2015	2016	ADIERAZLEAK
AE 11.1 Indarkeria jasaten duten emakumeenganako arreta hobetzea, gizarte-langileekin eta familiako hezitzaileekin arreta-prozesuak berrikusiz.	Mankomunitatea				Berrikusitako prozesuetan sartutako hobekuntzen kopurua.
AE 11.2 Berdintasun-zerbitzuaren, familia-hezitzaileen eta Mankomunitateko psikologoaren artean koordinatzea, urtero indarkeria jasan duten emakumeen seme-alaben egoerari buruzko jarraipena egiteko.	Mankomunitatea				Urtero txostena egitea.



Derioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana

II. ERANSKINA

(Ekintzak balotatzeko fitxa)



EKINTZAK EBALUATZEKO FITXA

UDALERRIA:

Loiu

Sondika

Derio

Zamudio

Lezama

Larrabetzu

EKINTZA:

ARDATZA:

PROGRAMA:

HELBURUA:

EKINTZAREN DESKRIPZIOA:

ARLO ARDURADUNAK:

IRAUPENA:

AURREKONTUA:

BETETZE MAILA:

Erabat

Zati batean

Ezer ez

ZAILTASUNAK:

EMAITZAK:

OHARRAK: